

18.500 milioi euro baino gehiago kudeatzen ditu jasangarritasun-irizpideen arabera

Kutxabank Gestion-ek PRIen kalifikazio gorena lortu du inbertsio jasangarrian

- Nazio Batuek sustatutako Inbertsio Arduratsuaren Printzipioek (PRI) 5 izar eman dizkiote, 9,5eko balorazioarekin bere estrategia eta gobernantzari dagokionez
- Errenta finkoaren zuzeneko kudeaketa (9,6ko balorazioarekin) eta errenta aldakorrena (9,1ekoarekin) ere 'bikain' kalifikatu dira

2025eko urtarrilaren 16an. Kutxabank Gestioneak, bigarren urtez jarraian, Nazio Batuek sustatutako Inbertsio Arduratsuaren Printzipioen (PRI) aitorten gorena lortu du inbertsio arduratsuaren estrategiaren eta gobernantzaren balorazioan, 10etik 9,5eko nota lortu baitu.

Horrela, kudeatutako aktiboen bolumenaren arabera (40.000 milioi euro baino gehiago 2024ko ekitaldi-itxieran) merkatuko laugarren sozietate kudeatzaileak erreferentziazko lekua betetzen du gizartearekiko inbertsio arduratsuaren esparruan, bai estatuan, bai nazioartean, printzipio horien gainerako sinatzaileen batez besteko jardunarekin alderatuta, azken berrikuspenean 6,1ekoa izan baita.

Nazioarteko erakundeak berriz ere bikaintzat jo du Kutxabank Gestioneak bere inbertsio arduratsuaren eredia garatzeko erabiltzen duen esparrua, besteak beste, honako hauek ebaluatuz: jasangarritasunarekiko konpromisoa, politikak eta prozedurak, horiek gauzatzeko estrategia eta gizartearekiko inbertsio arduratsuaren gobernantza-sistemaren sendotasuna.

Inbertsio arduratsuaren ereduaren inplementazio praktikoa ere 'bikain'tzat jo dute PRIek, errenta finkoaren zuzeneko kudeaketan 10etik 9,6ko puntuazioarekin eta errenta aldakorrean 9,1ekoarekin.

18.500 milioi euro baino gehiago jasangarritasun-irizpideen arabera

Kutxabank Gestioneak 18.500 milioi baino gehiago kudeatzen ditu jasangarritasun-irizpideen arabera.

Duela zenbait urtetatik hona, Kutxabank Gestionen fondo guztiek (mugaegunerako errentagarritasun-helburua duten fondoek eta epe laburrerako errenta finkoan ardaztutakoek izan ezik) ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen dituzte, edo inbertsio jasangarriak dituzte helburu esplizituztat (EB 2019/2088 Erregelamenduko 8. art. edo 9. art., hurrenez hurren).

2024an, Kutxabank Solidario FI (orain Kutxabank Compromiso Solidario Sostenible FI) fondoaren inbertsio-politika aldatu egin du, garapen jasangarriko helburuekin (GJH) bat etorrazteko, inpaktu edo eragin esplizituarekin lau ingurumen-erronkatan: ekosistemen babesean, baliabideen erabilera eraginkorrean, garraioaren deskarbonizazioan eta energia berriztagarrietan. Gainera, fondoaren izaeraren arabera, sozietate kudeatzaileak kudeaketa-komisioaren zati bat dohaintzan ematen die GKEek gidatutako proiektu jasangarriei.

Kutxabank Gestioneak bere bezeroen epe luzeko inbertsioen errentagarritasuna maximizatzen du, ESG alderdiak eta jasangarritasun-arriskua inbertsio-erabakietan txertatuz, eta 5 jardueraildotan gauzatzen da hori: baztertze-irizpideetan (ESG arloan jardun okerra duten enpresak sektore eztabaidagarrietan eta alderdi fiskaletan), balorazio-irizpideetan (jaulkitzaileen

ebaluazioa ESG alderdietan, klima-aldaketari eta ESG eztabaiden kudeaketari buruzko Parisko Akordioaren helburuekin bat etortzea), gaikako inbertsioetan (bonu berdeak, sozialak, garapen jasangarrirako helburuetan inpaktuko inbertsioak, etab.), aurkako gorabehera nagusiak sartzean eta inplikazio-politika bat (boto eta elkarrizketa edo *engagement* politika) gauzatzean.